

52 egunez egun



2014ko otsaila



Beasaingo Udalak  
14.860.347 euroko  
aurrekontua du aurten



2 Iritzia 3 Igartzaren norantza berria 4-5 Hondakinak 6-7 2014ko Udal aurrekontua  
8 Prestazio ekonomikoak 9 Langabetuen kontratazioa 10 Hitzarmenak 11 laburrak 12 Inauteriak

Beasaingo udal aldirakaria

beasaingo



Beasaingo udala

# Herritarrekin egindako aurrekontuarekin lanean

**2**014 urteko aurrekontuak onartuta. Urtarrilaren 23ko osoko bilkuran onartu genituen Beasaindarrok 2014 urtean izango ditugun aurrekontuak. Prozesu luze baten ondorioz adostutako zenbakiak izan dira, izan ere, iazko urrian hasi ginen lanean eta baita herritarrekin elkartzen ere, sentsibilitate guztien iritzi eta ekarpenak jasotze aldera. Herritarrekin bilera desberdinak egin genituen eta hortik 20 ekarpenetik gora erantsi gure aurrekontuari.

Ondoren, alderdi politikoekin beste dozena bat bilera ere egin ditugu eta egin dituzten ekarpen gehienak sartu ditugu aurrekontuan. Beraz, herritarrok egindako aurrekontuak direla esan dezakegu. Krisi garai batean egindako aurrekontuak, baina, inbertsioetara eta herritarren beharretara egokitu ditugun aurrekontuak eta ongizateari, parte hartzeari eta Beasain biziberritzeari garrantzia ematen diotenak, azken hau bere ikuspegi zabalenean hartuta.

2013 urteko aurrekontuetan sarturiko

koldo agirre • udaletik



inbertsioak, exekutatuta edo exekutatutako izateko bidean daude, beraz, balantzea positiboa delakoan gaude. Harturiko konpromisoak bete ditugu, herritarrekin lanean jardun dugu eta akordio desberdinak gauzatu ditugu, bai batzuekin baita beste batzuekin ere. Zentzu honetan, aurtengorako ere, asmo bera dugu eta gure konpromisorik irmoena azaltzen dugu onartu berri diren aurrekontu hauek aurrera eramateko. Herritarrekin batera, elkarlanean, akordioen bidez eta GOGO BATEZ, gure bidea egin jarraituko dugu.

Ya se han aceptado los presupuestos de 2014. Los presupuestos que vamos a tener este año, los aprobamos en el pleno del pasado 23 de enero, después de un largo proceso. Dicho proceso comenzó

en octubre del año pasado, recogiendo opiniones y aportaciones de la ciudadanía. Han sido más de 20 las aportaciones de los y las beasaindarras, las cuales, hemos incluido en el presupuesto. También se han incluido las aportaciones que han realizado los distintos partidos políticos de la oposición. Así, podemos decir que es un presupuesto elaborado por la ciudadanía, priorizando revivir Beasain, el bienestar de las personas y la participación ciudadana.

Tal y como hicimos en 2013, este año, también trabajaremos para el municipio, cumpliendo los compromisos adquiridos y buscando y logrando distintos acuerdos. Junto con la ciudadanía y mediante acuerdos, tenemos el compromiso de ejecutar el presupuesto recién aprobado.

## inkesta Zer moduzko esperientzia da auzokonpostarena?



Maria Asun Urbizu

Lehen, organikoa edukiontzi marroira botatzen nuen eta etxeko fruta-arbolei ere botatzen nizkien fruta hondarrak, baina, konposta egiten ez nekenez, ez nuen egiten. Nik dena birziklatzen dut; baita tapoiak ere. Eta hona ekartzea, ez zait ezer kostatzen.



Francisco Rodriguez

No requiere casi esfuerzo. Yo, además, lo tengo a 50 metros de casa. Supone un mínimo esfuerzo, pero nada para llevarse las manos a la cabeza. Es muy llevadero. Creo que todos los que lo hacemos estamos concienciados con el reciclaje y lo tomamos en serio.



Mari Karmen Artola

Ni oso gustura nago. Erraza da, ondo eta garbi egiteko aukera daukagu, eta auzokonposta gunea etxetik gertu dut gainera. Bakoitzak bere ahalegintxo egin beharra daukagula uste dut, eta sistema hau atez-atekoa baino nahiago dut nik.

# Igartzaren norantza berria

Beasaingo Udalak Igartza Monumentu Multzoa kudeatzeko baldintza plegu berria argitaratuko du. «Herriko kulturgintza Igartzara begira» jartzea lortu nahi du Udal Gobernu Taldeak.

Igartza Monumentu Multzoaren kudeaketarako baldintza plegu berriak argitaratuko ditu Beasaingo Udalak, Igartza norantza berria jartzeko asmoz. Garbiñe Zurutuza Igartzako batzordeburuaren hitzetan, udal gobernuak kultur politika berri bat egin nahian dabil: «Gehiago irekiko gaituena. Herri aktibazioan eta parte hartzean lagunduko duena eta konplizitate berriak ahalbidieratuko dituen». Ildo horretan, «zuzenean udaletik kudeatu nahiko genuke, baina ezinezkoa da legeak ez duelako uzten; beraz, bi urteko baldintza pleguak aterako dira, herritarrei lana ematea delarik gure helburua».

2012. urtean egindako parte hartze prozesutik «ateratako ondorioei jarraiki iritsi gara gaur egun gauden momentura». Beraz, herritarrek animatu nahi dituzte Udalak, «proiektu honetan inplikatzeko eta lehiaketan parte hartzeko». Igartzaren kudeaketa, udala eta esleipendunaren elkarlan zuzenaren bitartez egingo da.

Igartzarako 2014 urterako aurrekontuan 145.000€ daude, unitate didaktikoak egiteko, museoa herritarrei ireki ahal izateko eta baldintza plegurako. Orain arte, «panel informatiboak egin ditugu, promozio lana ere bai, eta gure proiektu berria Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu ondoren, diru laguntzak jaso ditugu».



Igartza multzoa.

## Kronologia

» 2002-2011 bitartean, Igartza zahar berritzen 7.000.000€ erabili zituzten Beasaingo Udalak.

» Udal hauteskundeen atarian, 2011ko martxoaren 15ean, PNV alkatetzan zegoelarik, Igartza kudeatu eta ustiatzeko baldintza plegu bat ateratu zen, Dolarea S.Lri esleitu zitzaiona.

» 2013an Udal Gobernuak kontratu hori ez berritu eta baldintza plegu berriak ateratzeko saiakera egin zuen. Lortu ez zen arren, kontratuan zenbait aldaketa egin ziren, «ordura arte ez bezala, Igartza enpresa pribatu batek bere irabazi asmoetarako erabili ordez, zuzenean Udaletik kudeatu ahal izateko, eta herritarren erabilerarako irekiaz».

» Urtebete beranduago, aurten, PSE-ren aldeko bozkarekin kontratua ez berritzea erabaki da.

## Baldintza pleguen helburuak

Baldintza plegu berriak ondorengo helburu nagusiak oinarri hartuta argitaratuko dira:

» Herriko kulturgintza Igartzari begira jartzea, bertan dugun altxorra balioan jarritz, ekintza desberdinak sustatuz, dinamizatuz eta sormena bultzatuz.

» Hezkuntza arloari begira ikastetxeekin hitzarmenak egin nahi ditu Udalak.

» Merkataritza eta Turismoa ere garrantzitsua izango da Igartzan, «berezko ezaugarriak bultzatzeko jarduerak antolatuz eta plan turistikoa eginez».

El Ayuntamiento de Beasain tiene como objetivo darle una nueva proyección al Conjunto Monumental de Igartza. Con el objetivo de mejorar la gestión, publicará unos nuevos pliegos. En palabras de la concejala de Igartza Garbiñe Zurutuza, «Nos gustaría gestionar Igartza directamente desde el Ayuntamiento pero como la ley actual nos lo impide, se publicarán unos pliegos para gestionar Igartza durante dos años».

«Hemos llegado al momento actual, siguiendo los criterios establecidos en el proceso de participación realizado en 2012». Así que, desde el Ayuntamiento se quiere animar a los y las bea-

saindarras a que se impliquen en este proyecto y participen en el concurso. De esta manera, Igartza se gestionará mediante un trabajo en equipo entre el Ayuntamiento y la entidad adjudicataria.

El nuevo pliego de condiciones se publicará en base a los siguientes objetivos: crear en Igartza una referencia para el movimiento cultural del municipio, elaborar convenios con los centros de enseñanza de la localidad y remarcar la importancia del comercio y turismo fomentando actividades que impulsen las características propias y realizando el plan de turismo.

## Cronología

» 2002-2011: se utilizaron 7.000.000€ en la restauración de Igartza.

» Marzo de 2011: el anterior gobierno saca un pliego de condiciones y resulta adjudicatario Dolarea S.L.

» 2013: El Equipo de Gobierno actual propone no renovar el contrato anterior y sacar unos nuevos pliegos. Aunque la propuesta no sale adelante, se realizan varios cambios en el contrato para gestionar Igartza directamente desde el Ayuntamiento y para que los y las beasaindarras puedan utilizar Igartza.

» 2014: no se renovará el contrato y se sacarán nuevos pliegos de condiciones.

# %20ko hobaria izango dute hondakin organikoa bereizten duten herritarrek

Beasaingo Udalak eta Sasieta Mankomunitateak organikoaren bilteta bultzatu nahi dute hobarierekin. Bestek beste, edukiontzi marroia astean behin gutxienez erabiltzea da baldintzetako bat.

Zabor tasan hobaria izango dute organikoa sailkatzen duten beasaindarrek, hondakin organikoaren bilteta bultzatzeko helburuarekin. % 60ko birziklatze tasa lortzeko bidean, Beasaingo Udalak, aho batez, hartutako neurri berriarekin, birziklatzen dutenek birziklatzen ez dutenek baino %20 gutxiago ordainduko dute.

Bi baldintza bete beharko dira hobarria eskuratzeko: organikoa ondo sailkatu eta edukiontzi marroia erabiltzea; eta edukiontzi marroia astean behin gutxienez erabiltzea. Konposta egiten dutenek ere hobaria jasoko dute.

Edukiontzi marroia sarraila elektronikoko bidez irekitzeak datuak biltzen laguntzen du, txartelarekin edukiontziko tapa irekitzen den bakoitzean nork eta noiz erabili duen erregistratuta geratzen baita. Datuak biltzen martxoan hasiko dira, eta oportetean edukiontzi marroia erabiltzen ez dela kontuan izango da. Edukiontziko sarrailik oraindik ez dutenek, egunotan aukera izango dute eskuratzeko, Sasietak jarriko dituen informazio guneetan.

## Organiko sortzaileak

Organikoa sortzen duten komertzio eta elkarteekin ere kanpaina berezia egingo dute otsailan, eta informazioa eta aholkularitza zuzenean jasoko dute, otsailaren 3tik aurrera. Era berean, kasu



## Zaldizurretako auzokonposta gunea

Zaldizurretako lorategiak itxura berria hartu du abenduaz geroztik, hesitutako gunean, Zaldizurretako auzokonposta gunea sortu baitute. Zaldizurreta inguruko 10 familiek etxean sortutako materia organikoa bertara eramaten dute. Sasieta eta Udala gustura daude izan duen harrerarekin. Sasieta Enrike Enparantzak argitu duenez, «edukiontzi marroian biltzen dena planta industrial batera eramaten da kamioietan. Auzokonposta egiten denean beraz, bertatik bertara egiten dute. Konposta beraiek bertan egiten dute eta sei-zortzi hilabeteetan beraiek erabiltzen dute konposta. Auzokonposta litzateke prozedura ideala, jasangarriago delako». Eskari gehiago egonez gero, Udalak auzokonposta gune gehiago ere sortu nahi ditu herrigunean. Interesatuak izena eman behar dute Sasieta (943 16 15 55 - Eli).

berezia eta zalantzak ere aztertuko ditu Udalak. Eskaera orria Udaletxeko

arreta bulegoan aurkeztu behar da (943 02 80 50 - udala@beasain.net).

Para impulsar la recogida de materia orgánica, el Ayuntamiento de Beasain bonificará la tasa de basuras un 20% a las personas que participen. Es decir: los y las beasaindarras que separen el orgánico pagarán un 20% menos que las que no lo hacen. Todos los que hagan compost también recibirán la bonificación. A partir de marzo, a través de la tarjeta electrónica del contenedor marrón, se recogerán datos, ya que cada vez que se abre el contenedor con la tarjeta queda registrado quién y cuándo lo ha utiliza-

do. Las personas que no tengan la tarjeta electrónica tendrán oportunidad de apuntarse en el punto de información que colocarán en los bajos de la Plaza.

En febrero se realizará una campaña

### Requisitos para obtener la bonificación del 20 %

- » Separar correctamente el orgánico y utilizar el contenedor marrón.
- » Utilizar el contenedor como mínimo una vez a la semana.

especial entre los comercios y sociedades que generan materia orgánica. Recibirán información y asesoramiento personalizado a partir del 3 de febrero.

### Compostaje comunitario

Diez familias de Zaldizurreta están haciendo compostaje comunitario. Ellas se encargan de llevar el orgánico al punto de compostaje y de hacer el compost. Los interesados en el compostaje comunitario deberán llamar a Sasieta (943 16 15 55 - Eli).

Koldo Agirre, Beasaingo alkatea

## «Helburuetara iristeko lehen pausoa sentsibilizazio kanpaina da»

**Todos los partidos políticos que componen el Ayuntamiento de Beasain, han acordado dar pasos con el objetivo de llegar a reciclar el 60% de los residuos. Según el alcalde Koldo Agirre, «hemos empezado a hablar sobre los objetivos y el primer paso para llegar a ellos, es la campaña de sensibilización»**

**Alderdi guztien adostasun maila garrantzitsu bat plazaratu berri da hondakinen birziklatzearen gaian. Zeintzuk dira hurrengo urratsak?**

Lehenik eta behin esango dugu birziklatze tasak hobetzeko adostasunaz hitz egin behar dela, eta hori ez da oraingoa. Gipuzkoan aurreko legealditik dator birziklatze tasa 2016rako %60koa izan behar dela. Hemen ados jarri gara helburu horretara iristeko pausu bat ematen, sentsibilizazio kanpaina bat egiten, baina hasiera baka-rik da, lehen pausoa. Orain, helburu horietara iristeko eta ahalik eta gehien birziklatzeko bidea nola egin erabaki behar dugu. Guztion artean erabaki beharko dugu helburuak betetze alde- ra zein pauso gehiago eman beharko ditugun. Beraz, okerra da hondakin bilketa sistema erabakita dagoenik eta edukiontzi marroian oinarritzen denik. Hurrengo asteetan eman beharreko eztabaida da hori.

**Eztabaida horren ardatz nagusiak zeintzuk dira?**

Aipatu dudanez, lehen helburua birziklatze tasak hobetzean dago. Hori da abiapuntua. Egun %40ra iritsi ezinik gabiltza eta gaikako bilketa ez da herritarren erdira iritsi. Hortik dator hoberi kanpaina, beasaingarrak bide horretan borondatez sartzeko. Helburua ahalik eta gehien birziklatzea da eta helburu horietara iristeko hondakinen bilketak garrantzi handia izango du. Gure ustez, eta horrela defendatuko dugu, %80ko tasa horietara berehala eta egokien iristeko modua, fro-



Koldo Agirre.

•• «Todos los partidos hemos acordado dar pasos para conseguir que en Beasain se recicle el 60%» ••

•• «Basamos el consenso en la tasa de reciclaje, en los objetivos y en lo que hay que hacer para llegar a ellos» ••

•• «Estamos dispuestos a negociar para llegar al 80%, sin poner ninguna condición y sin ninguna intención de politizar el tema» ••

•• «Hemos impulsado el reciclaje voluntario, pero todos debemos asumir la responsabilidad de los residuos que generamos» ••

gatuta dagoena eta Goierrin nagusi dena, atez atekoa da. Beste ardatz bat frakzioena da, bi frakzio dira aztertu behar direnak, organikoa bai, baina baita errefusa ere. Hala ere, badaude beste esperientzia batzuk, beste formula batzuk eta hori ere eztabaidatzeko prest gaude, baldintzak jarri gabe, eta gaia politizatze inongo asmorik gabe.

**Frakzio organikoa edukiontzian jasotzen ari da. Zeintzuk dira emaitzak?**

Urteak daramagu organikoa bereizten, eta azken hilabeteetan sarraila elektronikoa ere jarri zaio. Hala ere, ahalegin horrek ez du adostutako %60ko birziklatze tasa adostura iristea lortu. Organikoa bereizten duten herritarren borondatezko ahaleginak, egiten ez dutenekin egiten du topo eta horrek aurrera egin ezinik uzten gaitu. Borondatezko ahaleginari bultzada eman diogu orain, baina derrigorrezkoa izan behar dela uste dugu.

**Nola erabakiko da bilketa sistema berria?**

Alderdien parte hartzeaz gain, herritarren eta eragile desberdinena ere ezin bestekoa da gure ustetan. Beraz, prozesu horretan adostasunez erabakitzea da gure helburua, ados gaudena lehenetsiz eta bereizten gaituena alboratuz. Guk birziklatze tasan oinarritzen dugu adostasuna, helburuetan eta helburuetara iristeko egin behar dugunean. Hala ere, bilketa sistemaz hitz egiterakoan, bi frakzio oso ondo landu beharko ditugu, organikoa eta errefusa. Badugu lana hemendik aurrera. Sentsibilizazio kanpaina hau hasiera baino ez da, orain dugu lana helburuetara iristeko ze pausu gehiago eman behar ditugun eta helburuak betetzen ez badira, ze neurri zuzentzaile aplikatuko ditugun guztion artean, alderdi, herritar zein eragileen artean, eztabaidatu eta erabakitzeko. Borondatezko ahaleginari bultzada eman diogu orain, baina herritar guztiak konprometitu beharko dira birziklapenarekin.

# 2014ko udal aurrekontuak pertsonak lehenesten ditu

14.860.347 euroko aurrekontua izango du Beasaingo Udalak. Pertsonetan oinarritutakoa da aurrekontua, hirigintza jasangarria eta herritarren parte hartzea ahalbidetu eta sustatuko duena.

Urtarrilaren 23ko udalbatza onartu zen 2014ko udal aurrekontuak, pertsonak lehenesten ditu. «Hiru ardatz nagusi ditu aurtengo aurrekontuak: pertsonetan oinarritutakoa da, hirigintza jasangarria, bere zentzurik zabalenean, helburu duena eta herritarren parte hartzea ahalbidetu eta sustatuko duena», dio Koldo Agirre alkateak.

Ilido horretan, Udal gobernuarentzat «garrantzia berezia hartzen dute euskarak, enpleguak eta ongizate arloak. Gainerako arloak mantentzeko saiakera egin dugu». Oro har, diru kopuruari dagokionez, iaizkoaren antzekoak dira aurtengorako zehaztu dituzten aurrekontuak. «Izan ere, fondo forala igo egin da eta 2009tik itzultzen ari ginen

## 14.860.347 euro

Ogasuna	3.421.644,30
Ongizatea	1.819.975,55
Euskara	432.807,54
Kultura	1.184.052,71
Hirigintza	1.627.785,47
Gaztedia	222.550,78
Gobernazioa	1.233.209,77
Landa	221.800,00
Zerbitzuak	3.673.658,42
Ingurugiroa	70.125,00
Merkataritza	67.292,00
Aniztasuna	4.000
Berdintasuna	50.215,46
Parte hartzea	80.680
Hezkuntza	750.550

kantitatea 2013an bukatu dugu ordaintzen».

Herritarrekin batera landutako aurrekontua da. Aurrekontuak osatzeko *Aurrekontu parte hartzaileen bidean* parte hartze prozesua burutu du Udalak. Herriko ongizate, hirigintza, ingurumen, landa eremuko auzoetako eta kultura eta euskara sektoretako eragileekin bilerak egin eta ekarpenak jaso dira. «Egindako ekarpen guztiak aztertu eta ahalik eta gehienak sartzeko saiakera egin dugu». Beraz, «elkarrekin herrigintza egin daitekeela erakutsiz goaz. Hau da gure egiteko modua eta bide honetatik jarraituko dugu».

Era berean, alderdi politiko desberdinen ekarpenak biltzen dituen aurrekontua ere bada.

## Aurrekontuko proiektu batzuk

» Oriamendi kalearen birmoldaketa.

» Nafarroa etorbidearen eta Barrendain plazaren konponketak.

» Plan orokorraren diagnostia.

» 100.000€ dau den beharrei eta

gaur egungo egoeraren ondorioz, suertatu diren behar berriei erantzuteko.

» Ezkiaga auzoan 120.000€ko partida irekia, auzotarrek erabaki dezaten.

» Auzoetako garraioa.

» Elkarrekin hitzarmenetan %5eko igoera.

» 10 beasaindar langabetuen kontratazioa.

» Udalaren behar desberdinei erantzuteko lan poltsa baten eraketa beasaindar langabetuekin.

» Arriaran eta Gudugarretako bidearen berreskuratzea.



Barrendain plaza.

## Varios Proyectos del presupuesto

» Remodelar la calle Oriamendi.

» Acondicionar Nafarroa Etorbidea y la plaza Barrendain.

» Diagnóstico del plan general del municipio.

» 100.000 euros para responder a las necesidades actuales y a las

nuevas necesidades surgidas como consecuencia de la situación actual.

» Partida abierta de 120.000 euros para el barrio Ezkiaga. Los vecinos podrán decidir qué hacer con ese dinero.

» Transporte en los barrios.

» Subida del 5 % a las asociaciones.

» Contratación de 10 personas paradas del municipio.

» Creación de una bolsa de trabajo para responder a diferentes necesidades del Ayuntamiento.

» Recuperar el camino entre Arriaran y Gudugarreta.



Oriamendi katea.

El presupuesto que se aprobó el 23 de enero en el pleno se basa en las personas. También prioriza un urbanismo sostenible y fomenta la participación ciudadana. En esa dirección, toman importancia el euskera, el empleo y el bienestar.

En general, la cantidad presupuestada apenas cambia, «gracias a que ha subido el fondo foral y que en 2013 hemos terminado de devolver la cantidad que comenzamos a devolver el 2009».

Estos presupuestos «los hemos trabajado con la ciudadanía. Hemos realizado varias reuniones con diferentes sectores del municipio, y hemos introducido varias aportaciones realizadas en dichas reuniones». Además, es un presupuesto que cuenta con aportaciones realizadas por los diferentes partidos políticos de la oposición.

«Vamos demostrando que es posible trabajar juntos. Éste es nuestro estilo y seguiremos por este camino», subraya



Ezkiaga auzoko Ezkierdi parkea.

•• Los y las vecinas de Ezkiaga podrán decidir qué hacer con 120.000 euros, para invertir en la mejora de su barrio ••

el alcalde Koldo Agirre. Los vecinos y las vecinas de Ezkiaga, por ejemplo, tendrán una nueva oportunidad para participar en la gestión del desarrollo del municipio y en concreto de su barrio. «Podrán decidir qué hacer con 120.000 euros».

## Idoia Baztarrika, Ongizate zinegotzia

«Gaur egungo egoeran, krisi garai honetan, orain arte ez genituen behar berriak sortu dira»

**Zergatik eman diozue garrantzia berezia ongizate arloari?**

Guk pertsonak ditugu ardatz eta honekin batera noski, pertsonen ongizatea. Beti lehenetsi dugun arloa da, beti egon dira eta daude beharra duten pertsonak, hobe bizitzeko hobetu beharreko egoerak... Gaur egungo egoeran, krisi garai honetan, orain arte ez genituen behar berriak sortu dira. Behar berri horiei ere heldu nahi izan diegu, herritar gehiago daudelako laguntza premian.

**Zein ekimen berri jarriko dituzue martxan arlo honetan?**

Orain arteko ekimenak mantendu egin ditugu baina badaude berrikuntzak bai. Batzuk aipatzearen, tailer eta programa desberdinak aipatuko genituzke. Alde batetik adineko pertsonentzako prebentzio-estimulazio tailerrak egongo dira; bestetik, hezkuntza sistematik kanpo geratu diren gazteei zuzendutako motibazio tailerrak ere antolatuko ditugu eta azkenik, pertsona helduei zuzendutako akonpainamendu programa bat ere



abian jarriko dugu, egunerokotasunean aritzeko laguntza eta esku-hartzea behar dutenei begira. Bestalde, familia esku-hartzeetako partida igo egin dugu eta kiroldegia zerbitzuen erabilpenagatik laguntzak zabaldu ditugu. Behar berriei erantzuteko helburua duten ekimenak dira guztiak.

**Habéis mencionado que el presupuesto está basado en las personas. ¿Por qué?**

El punto de partida en todas las áreas, no sólo en bienestar, han sido las personas y su bienestar. Nos hemos basado en el bienestar de las personas, y hemos elaborado nuestras propuestas en base a ello; por ejemplo, crearemos una bolsa de trabajo con todas las personas paradas del municipio y se contratará a diez personas. En el área de urbanismo también hemos partido de las personas y así, podemos mencionar los trabajos de remodelación de la calle Oriamendi y los trabajos de mejora de Nafarroa etorbidea y la plaza Barrendain.

•• El punto de partida en todas las áreas, no sólo en bienestar, han sido las personas y su bienestar ••

# Mendekotasuna duten herritarrentzako ekonomikoak bideratzen ditu Ongizatea

## Ingurune familiarreko zaintza

Diru laguntza bat ematen da mendekotasuna duen pertsonarekin bizi den senitarteko batek zaindu dezan. Prestazioa mendekotasuna duen pertsonak eskatu eta jasotzen du, adin txikiak edota ezintasuna dutenen kasuan izan ezik.

### » Baldintzak.

» **Mendekoa den pertsona.** Mendeko bezala baloratuta egotea 1 gradutik aurrera (gutxienez 40 punturekin), Gipuzkoan errolatuta egotea eta bertan bizitzea..

» **Zaintzailea.** 18 urte beteak izatea, hirugarren mailara arteko ahaidetasuna izatea mendekotasuna duen pertsonarekiko, mendekoa den pertsonarekin errolatuta egotea eta etxe berean bizitzea..

» **Orokorrean.** Prestazioa egokia izatea, mendekotasuna duen pertsonari ematen zaion zaintza bere beharretara egokitzea, eta bizigarritasuneko eta elkarbizitzako baldintzak egokiak izatea.

### » Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

» **Mendekoa den pertsona.** Kontu zenbakia 20 digitoekin.

» **Zaintzailea.** NAREN kopia eta Gizarte Segurantzaren zenbakia.

## Cuidados en el entorno familiar

Se reconoce una aportación económica para que una persona familiar que resida con la persona dependiente le cuide. La prestación la solicita y se paga a la persona dependiente, excepto en el caso de menores y personas incapacitadas.

### » Requisitos.

» **Persona dependiente.** Estar valorada como persona dependiente a partir de grado 1 (mínimo 40 puntos), estar empadronada y residir en Gipuzkoa.

» **Persona cuidadora:** Ser mayor de 18 años, familiar de la persona dependiente hasta el tercer grado de parentesco, estar empadronada y residir en el mismo domicilio que la persona dependiente.

» **En general.** Ser la prestación idónea, y los cuidados que se están prestando resulten adecuados a las necesidades de la persona dependiente, y darse las condiciones de habitabilidad y convivencia adecuadas.

### » Documentación a presentar.

» **Persona dependiente:** N° de cuenta con 20 dígitos.

» **Persona cuidadora.** Copia del DNI y N° de Seguridad Social.

## Laguntza pertsonalerako

Diru laguntza bat ematen da mendekotasuna duen pertsonak laguntzaile pertsonala kontratatu dezan bera zaintzeko. Prestazioa mendekotasuna duen pertsonak eskatu eta jasotzen du, adin txikiak edota ezintasuna dutenen kasuan izan ezik.

### » Baldintzak.

» **Mendekoa den pertsona.** Mendeko bezala baloratuta egotea 1 gradutik aurrera (gutxienez 40 punturekin); Gipuzkoan errolatuta egotea eta bertan bizitzea, eta laguntza pertsonala emango duen pertsonarekin edo enpresarekin kontratua sinatuta edukitzea. Zerbitzua emango duen pertsonak 18 urte beteak izan behar ditu eta ez du laugarren maila arteko ahaidetasunik izan behar mendekotasuna duen pertsonarekiko eta altan egon behar du Gizarte Segurantzaren.

» **Orokorrean.** Prestazioa egokia izatea, mendekotasuna duen pertsonari ematen zaion zaintza bere beharretara egokitzea, eta bizigarritasuneko eta elkarbizitzako baldintzak egokiak izatea.

### » Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

» **Mendekoa den pertsona.** Kontu zenbakia 20 digitoekin.

» **Zaintzailea.** NAREN edo AIZREN kopia, helbidea eta telefonoa.

» **Orokorrean.** Lan kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzaren altaren agiria.

## Asistencia personal

Se reconoce una aportación económica para que la persona dependiente contrate asistente/s personal/es para que le cuiden. La prestación la solicita y se paga a la persona dependiente, excepto en el caso de menores y personas incapacitadas.

### » Requisitos.

» **Persona dependiente.** Estar valorada como persona dependiente a partir de grado 1 (mínimo 40 puntos), estar empadronada y residir en Gipuzkoa y tener un contrato con la persona o empresa que vaya a realizar la asistencia personal. La persona que realice el servicio tendrá que ser mayor de 18 años sin lazos de parentesco con la persona dependiente hasta el cuarto grado y tendrá que estar dada de alta en la Seguridad Social.

» **En general.** Ser la prestación idónea, y los cuidados que se están prestando resulten adecuados a las necesidades de la persona dependiente, y darse las condiciones de habitabilidad y convivencia adecuadas.

### » Documentación a presentar.

» **Persona dependiente:** N° de cuenta con 20 dígitos.

» **Persona cuidadora.** Copia del DNI o NIE, dirección y teléfono.

» **En general.** Fotocopia del contrato de trabajo y justificante de alta en la Seguridad Social.



# prestazio e Sailak

## Zerbitzuak

Diru laguntza bat ematen da mendekotasuna duen pertsonak eguneko zentro eta egoitza arretako zerbitzu pribatuen kostua ordaintzen laguntzeko asmoarekin.

» **Baldintzak.** Gipuzkoako Lurralde Historikoan zerbitzu publiko edo itunduren bat eskatu izatea, itxaron zerrendan gutxienez hiru hilabetez egotea eta zerbitzua zentru pribatu batean jasotzen duela frogatzea eta zentru hori mendekotasunaren arretarako homologatua izatea Gipuzkoan.

» **Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Kontu zenbakia 20 digitoekin, zentru pribatuarekin egindako aurrekontratua edo kontratua eta egindako ordainketaren frogagiria.

## Servicios

Se reconoce una aportación económica para que la persona dependiente financie el coste de los servicios privados recibidos en centros de Atención Diurna o Residencial.

» **Requisitos.** Haber solicitado un servicio público o concertado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, permanecer como mínimo 3 meses en lista de espera y demostrar que dispone del servicio privado en un centro homologado para la atención a la dependencia, en Gipuzkoa.

» **Documentación a presentar.** Nº de cuenta con 20 dígitos, precontrato o contrato realizado con el centro privado y justificante del pago realizado.



2013tik kontratatuta dauden 4 langileak Sagastigoitiko lanak egiten.

# 10 beasaindar langabetu kontratatuko ditu Udalak

2013an oraindik lanean dauden beste lau langabetu beasaindar kontratatu zituen Beasaingo Udalak.

Udalaren behar desberdinei erantzuteko eta Udalak jasoko dituen diru laguntza batzuei esker, aurtun 10 beasaindar langabetu kontratatuko aukera dauka Udalak. Alde bateatik Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen bidez, hiru langile kontratatuko dira. Langile horiek Arriarango oinezko ibilbidea egokituko dute eta Olanan eraikina garbituko dute. Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, berriz, zazpi langile kontratatuko dira, ondorengo lanetarako: Ondasun inma-

teriala aztertzeko bi teknikari, hilerriko gorputz hondakinak lurpetik ateratzeko langile bat, euri uren sarea egokitzeko bi langile eta Gizarte Ongizate sailerako teknikari bat eta administrari bat.

### Lan poltsa

Udalak urtean zehar egin beharreko lan desberdinak egiteko beasaingo langabetuekin lan poltsa bat ere sortuko du. Sail desberdinak indartzeko balioko dute lan poltsa honetatik egingo diren kontratazio hauek.

Respondiendo a distintas necesidades del Ayuntamiento de Beasain y gracias a varias ayudas, este año se contratará a 10 personas del municipio que estén en desempleo. Mediante la ayuda de la Diputación Foral se contratará a 3 personas. Por otra parte, mediante las ayudas del Gobierno Vasco, se contratará a otras siete personas: dos para analizar los inmuebles inmatriculados, una para sacar restos humanos del ce-

menterio, dos para acondicionar la red de aguas fluviales, y otras dos personas para el departamento de Bienestar.

Por otra parte, el Ayuntamiento también creará una bolsa de trabajo con las personas desempleadas del municipio para realizar diferentes trabajos. Las contrataciones que se realicen mediante esta bolsa de trabajo serán para reforzar los diferentes departamentos del Ayuntamiento.

# Udalak akordioa sinatu du Gurutze Gorria eta Andramendi Ikastolarekin

**B**easaingo Andramendi ikastolak, Gurutze Gorriaren Urbialde plazako lokalak erabili ahal izateko eskaera luzatu zion Udalari bere hazkunderari erantzuteko eta hezkuntza proiektuarekin jarraitzeko. Era berean, Gurutze Gorria irisgarritasuna bermatzeko helburuarekin, leku aldaketa ondo hartuko lukeela adierazi zion Udalari.

Bi eskaerak mahai gainean izanda, bi erakundeei, ahalik eta irtenbiderik onena ematen ahalegindu da Beasaingo Udala. Ondorioz, bi hitzarmen berri sortu eta adostu ditu Udalak, bat Gurutze Gorriarekin eta bestea, Andramendi Ikastolarekin. Akordioari esker, Andramendi Ikastolak, orain arte Gurutze Gorriak erabili izan dituen lokalak erabiltzeko eskubidea izango du. Aimar Larrea Andramendi Ikastolaren lehendakariak adierazi duenez, «aurrerantzean gure ikasleek hezkuntza baldintza onetan jasotzeko aukera ematen digute lokal hauek».

## Gurutze Gorria Igartza auzora

Gurutze Gorria berriz, tokiz aldatuko da: Igartza Oleta kaleko 10. zenbakira, orain hartzaindegia dagoen lokal etako batera. Bertan bulegoak eta jendeari harrera egiteko lekua jarriko dituzte. Ikastaroak Goierri eskolara bideratu dituzte, Goierriko Eskolarekin egin duten hitzarmenaren ondotik. Era horretan, beste hamar urterako hitzarmenarekin bere zerbitzuak ematen jarraitzea bermatzen da. Gurutze Gorriko Jose Mari Baztarrikaren iritziz, «pro-



Ezkerretik eskuinera: Aimar Larrea (Andramendi Ikastola), Zezilia Herrador (Zinegotzia), Koldo Agirre (alkatea), Jose Mari Baztarrিকা (Gurutze Gorria) eta Itziar Flores (Eraginez)

●● Gurutze Gorria tokiz aldatuko da: Igartza Oleta kaleko 10. zenbakira, orain hartzaindegia dagoen lokal etako batera ●●

zesua behar baino gehiago luzatu da. Ikastolak beharrezkoak ditu gure instalazioak eta bide horretan ez gunden oztopo izan nahi. Orain herriak baloratu beharko du gure ustez onuragarria izango den aldaketa hau».

●● «Es buen cambio para nosotros, ahora lo tendrá que valorar el municipio».  
Jose Mari Baztarrিকা ●●

las dos entidades. El resultado ha sido la firma de dos convenios.

Gracias a este acuerdo, la Ikastola Andramendi podrá utilizar los locales

## Lokalak erabilgarri

Bestalde, Eraginez Kultur Elkartearekin ere hitzarmena sinatu du Udalak. Hitzarmen honek datozen bost urteetan Udalak Eraginezen lokalak (Ikastolaren jangela eta AEK euskaltegia dagoen gunea) erabiltzea ahalbideratuko du. Era honetan herriko talde eta eragile desberdinen aldetik geroz eta handiagoga den lokal eskaerari erantzuna ematen hasteko modua izango du Udalak.

Azkenik, Alkoholiko Anonimoen egoitzak ere kokaleku berria izango du. Herriko aurrera Oriamendi kalean kokatuko da, Odol Emaleek beren egoitza duten tokian.

que hasta ahora ocupaba Cruz Roja. Por su parte Cruz Roja cambiará de ubicación y se situará en el número 10 de la calle Igartza Oleta, donde actualmente está la guardería. En el nuevo local de Cruz Roja se habilitarán las oficinas y la recepción a la ciudadanía. Los cursos formativos se desarrollarán en la escuela Goierri.

La oficina de Alcohólicos Anónimos se ubicará en Oriamendi, junto a la sede de Donantes de Sangre.

La Ikastola Andramendi, con el objetivo de ampliar sus espacios y poder seguir desarrollando su proyecto educativo, realizó al Ayuntamiento una petición de uso de los locales que ocupaba Cruz Roja en la plaza Urbialde.

A su vez, Cruz Roja manifestó, que vería con buenos ojos el cambio de local con el objetivo de mejorar la accesibilidad. Teniendo las dos propuestas encima de la mesa, el Ayuntamiento se ha esforzado en ofrecer la mejor solución a

## Berdintasun plana martxan

Beasaingo Udala I. Berdintasun plana egiten hasiko da datozen egunetan, Elhuyar aholkularitzaren laguntzarekin. Herritarrekin, politikariekin eta teknikariekin bilerak egingo dituzte. Planaren aurrekontua 10.835,55 eurokoa da. Emakundek 8.126,66 euroko diru laguntza eman du.

En febrero el Ayuntamiento de Beasain comenzará a elaborar el I. Plan por la Igualdad, con la colaboración de Elhuyar. Para ello se reunirán con diferentes agentes sociales y políticos del municipio.

## 1. hiruhilekoaren zergen egutegi fiskala

Otsailaren 28ra arte ordaindu behar da 2014ko **Azoka Zergari dagokion** lehen hiru hilekoa. Otsailaren 1etik martxoaren 31ra, berriz, **Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga** ordaindu behar da.

Antes del 28 de febrero el Ayuntamiento cobrará el 1er trimestre de la **Tasa de Mercado**, y entre el 1 de febrero y 31 de marzo, la tasa correspondiente al **Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica**.

## Kultur agenda hilero etxean

Udala herriko agenda bateratua duen esku orria egiten hasi da. Helburua herrian egiten diren ekintza guztiak biltzea da: hitzaldiak, antzerkiak... baita zine emanaldiak ere. Esku orri hau hilero banatuko da herriko etxe guztietara.

El Ayuntamiento agrupará todas las actividades que se organizan en Beasain en un folleto mensual, el cual se repartirá en todos los hogares.

## Egokitze lanak egin dira liburutegian eta Musika Eskolako azken pisuko barandan

Udal liburutegiko haurren gunean egokitze lanak egin ditu Udalak. Argitasun natural gehiago eman zaio haurren guneari, leihoak eta argiteria aldatuz. Liburutegian cd-entzako eta dvd-entzako apalak ere berritu dira.

### Musika Eskolako baranda

Bestetik, herritar baten eskaerari erantzunez, Musika Eskolako azkeneko solairuko barandari kristala jarri zaio, arriskuak ekiditeko. Gabonetan egin da egokitzea.



Udal liburutegia.

El Ayuntamiento ha hecho reformas en la Biblioteca Municipal, en la zona infantil. Se han cambiado las ventanas y la iluminación, con el objetivo de tener

más luz natural. Por otro lado, en el último piso de la Escuela de Música, se ha instalado un cristal en la barandilla de la escalera, para evitar riesgos y accidentes.



Barandiaran parkea.

## Barandiaran parkea berritzen hasi dira

Urtarrilaren 22tik itxita dago Barandiaran parkea, berritze lanak egiteko. Apirilera lanak amaituta egotea aurreikusten du Udalak. Haurren jolasgunea arkupeak dauden aldera mugitzearekin batera, estali ere egingo dute.

Koloretako kristalera biribilak izango dituen estalpea jarriko dute haurren jolasgunea estaltzeko.

Desde el 22 de enero, el parque Barandiaran está cerrado al público. Están realizando obras para remodelar el parque y desde el Ayuntamiento se espera que las obras estén finalizadas para abril.

Junto con el cambio de ubicación del área de juegos, se cubrirá la zona con una cristallera con círculos de colores.

## Ostadar dantza taldea

«Inauteriak ezagutzera eman eta herritarrak parte hartzerara animatu nahi ditugu»

**Una vez más, el próximo 1 de marzo, el grupo de danzas Ostadar celebrará su habitual desfile de carnavales, con el objetivo de impulsar y dar a conocer los diferentes carnavales de Euskal Herria. Ostadar hace un llamamiento a todos los y las beasaindarras para que participen en la fiesta. Los ensayos se celebran los miércoles a las 19:00, los viernes a las 20:00 y los sábados a las 10:00, en el local de Ostadar (calle Oriamendi, 10).**

**Noiz hasi zineten euskal inauteriak bultzatzen? Zergatik?**

Orain dela 10 bat urte hasi ginen. Euskal Herriko Inauteri ezberdinak ezagutzera eman nahi genituen Beasainen. Horretarako, Inauteri horietan dantzatzeko diren dantzak, pertsonaiak, ekintzak eta abar ahalik eta txukunen imitatzen saiatu gara.

Baina Inauteri horiek ezagutzera emateaz gain, herritarrak ere parte hartzea nahi genuen, Inauteria kalean egiten baita eta hori bizitzeko aukera polita zela iruditu zitzaigun. Urteik urtera jendea animatzen joan da parte hartzerari dagokionez.

**Zein ikuskizun mota egiten duzue? Nongo dantzak egiten dituzue?**

Ez dugu ikuskizuna ematen soilik, nahi duen herritar orok parte hartu dezake Inauteri dantza hauetan. Baina gainera, ikusten dagoena ere parte hartzerara bultzatzen saiatzen gara, dantzara gonbidatuz edo pertsonaia batzuen bidez zirikatzuz.

**Zein pertsonaia irudikatzen dituzue?**

Nongo inauteria egiteko asmoa dugunaren arabera, pertsonaiak aldatzen doaz.

**Berrikuntzarik izango al da aurten?**

Pertsonaia berriak azaltzeko, jantziak behar dira. Urtero pertsonai berriren bat ateratzen saiatzen gara baina, diruak agintzen digu.



Ostadar dantza taldeko dantzariak.

**Irekia al da parte hartzea? Baldintzarik bete behar al da?**

Irekia da bai, eta baldintza bakarra daukagu jarrita, euskal kulturaz ondo pasatzeko gogoia izatea da.

**Entsaioak noiz eta non izango dira?**

Entsaioak asteazkenetan 19:00etan, ostiraletan 20:00etan eta larunbatetan 10:00etan izaten dira, Ostadar Dantza

•• Ikusten dagoena ere parte hartzerara bultzatzen saiatzen gara, dantzara gonbidatuz eta pertsonaia batzuen bidez zirikatzuz ••

•• Urtero pertsonaia berriren bat ateratzen saiatzen gara baina, diruak agintzen digu, pertsonaia berriak azaltzeko jantziak behar dira eta ••



Taldearen dantzako gelan, Oriamendi kaleko 10. zenbakian.

**Eta ikuskizuna bera?**

Martxoaren 1a larunbatean 10:30ean Ostadar Dantza Taldearen dantzako gelatik abiatu, tren geltokira jeitsi, hortik alde zahar aldera joan eta alde zahar guztia pasa ondoren, 13:30 inguruan bukatuko dugu.